


Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak % 3,8 igo dira 2019ko azaroan

Urteko lehen hamaika hilabeteetako metatua % 1,1eko hazkundearekin itxi da

2019ko azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek % 3,8ko urte arteko igoera izan dute prezio konstanteetan, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera. Termino desestazonalizatueta, urriko datuekin alderatuta, % 2,6 egin dute gora salmentek.

Elikagaien salmentak % 3,1 hazi dira, eta gainerako salgaienak % 5,2, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak kendu ondoren.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2019ko urria), elikagaien salmentak % 1,2 igo dira, eta gainerako produktuenak % 5,4, prezio konstanteetan eta termino desestazonalizatueta.

Lurraldeka, guztietan egon da igoera: Araban % 5,4, Gipuzkoan % 4,8 eta Bizkaian, % 2,8, iazko hilabete berarekin alderatuta; hori guztia prezio konstanteetan eta egutegi-ondorioetatik zuzenduta.

2019ko urtariletik azarora bitartean metatutako kopuruan, saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmenta-indizea % 1,1 hazi da, eta hazkunde hori elikaduran (% 1,6) eta gainerako produktuetan (% 0,3) izan da. Hiru lurraldeen bilakaera ere positiboa da: Arabak % 0,9 egin du gora metatutan, Bizkaia % 1,1 eta Gipuzkoak % 1,3; hori guztia prezio konstanteetan eta lan-egutegiaren termino homogeneoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietan eta elikadura-kateetan enplegatutako langileak % 0,3 igo dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 0,8, berriz, urriarekin alderatuta. Urtariletik azarora bitarteko metatutan, enplegatutako langileen kopuruak % 1,7 egin du gora 2018ko aldi berarekiko.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Azaroa. 2019

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,8	2,6	1,1
Araba/Álava	5,4	3,7	0,9
Bizkaia	2,8	1,7	1,1
Gipuzkoa	4,8	3,6	1,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	3,1	1,2	1,6
Beste produktuak	5,2	5,4	0,3
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	0,3	0,8	1,7

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62